

## BESTELAKO XEDAPENAK

ELIKADURA, LANDA GARAPEN, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

1952

*EBAZPENA, 2026ko martxoaren 26koa, Portuen, Itsas Gaien eta Itsasertzaren zuzendaria, zeinaren bidez xedatzen baita hasiera ematea Getariako udal-mugarteko (Gipuzkoa) Malkorbe hondartzako kantina eta terraza instalatzeko eta ustiatzeko emakida adjudikatzeko prozedurari eta onartzen baitira prozedura hori arautuko duten oinarriak eta emakidaren baldintzak.*

Lehenengoa.– Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Saileko Portuen, Itsas Gaien eta Itsasertzaren Zuzendaritzak beharrezkotzat jotzen du zenbait aldaketa egitea Malkorbe hondartzako kantinarene eta terrazaren kudeaketan –orain arte, sasoiko zerbitzuak eman ditu herrian–, ekipamendua hobetu eta zerbitzuaren egungo eskarrietara egokitzeko.

Bigarrena.– Portuen, Itsas Gaien eta Itsasertzaren Zuzendaritzak haren erabilera eta ustiapena adjudikatzeko lizitazio bat sustatu nahi du, itsaso eta lehorraren arteko jabari publikoa okupatzeko emakida baten bidez. Horretarako, lehiaketa honen deialdia egiten da, erabat beteta publikotasun, objektibotasun, inpartzialtasun, gardentasun eta norgehiagokaren printzipioak, halaxe ezartzen baitute Kostaldee buruzko Legeak 75. artikuluan eta Kostaldee buruzko Erregelamendu Orokorra onartzen duen urriaren 10eko 876/2014 Errege Dekretuak aurrekoarekin bat datozen artikuluetan.

Hirugarrena.– Abenduaren 23ko 1310/2024 Errege Dekretuak (zeinaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzen baitzaizkio Estatuko Administrazioak itsasertzaren antolamenduaren eta kudeaketaren arloan dituen eginkizunak eta zerbitzuak) Euskal Autonomia Erkidegoari esleitzen dio itsasertza antolatu eta kudeatzeko eskumena, Euskal Autonomia Erkidegoko itsaso eta lehorraren arteko jabari publikoaren okupazio- eta erabilera-tituluak kudeatzeari dago-kionez, administrazioaren, ikuskaritzaren eta zehatzeko ahalaren eremuan.

Kostaldee buruzko uztailaren 28ko 22/1988 Legearen 64. artikulua esleitzen ditu, besteak beste, jabari publikoko emakiden kudeaketarekin zerikusia duten eginkizunak. Azken horien barruan sartzen da emakidak ematea, berritzea, luzatzea, aldatzea eta azkentzea.

Laugarrena.– Aurrekoarekin bat etorritz, Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen abenduaren 11ko 438/2024 Dekretuaren 7.h) eta 15.1.g) artikuluek zuzendaritza honi ematen dizkioten ahalmenez baliatuz, hau

### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Hasiera ematea Getariako udal-mugarteko (Gipuzkoa) Malkorbe hondartzako kantina eta terraza okupatu, egokitu eta ustiatzeko administrazio-emakida adjudikatzeko prozedurari.

Bigarrena.– Erabakitzea kantina ustiatzeko emakida adjudikatzeko prozedura lehiaketa izan dadila.

Hirugarrena.– Onartzea prozedura arautuko duten oinarrien agiria; oinarriok ebazpen honen I. eranskinean agertzen dira.

Laugarrena.– Onartzea emakida arautuko duten baldintzak; baldintzok ebazpen honen II. eranskinean agertzen dira.

2026ko maiatzaren 11, astelehena

Bosgarrena.– Ebazpen hau argitaratzea Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Euskadiko Kontratazio Publikoaren Plataformako Kontratatzailearen Profilean.

Seigarrena.– Ebazpen honek ondorioak izango ditu Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko martxoaren 26a.

Portuen, Itsas Gaien eta Itsasertzaren zuzendaria,  
KOLDOBIKA GOITIA MARKUERKIAGA.

## I. ERANSKINA

OINARRIEN AGIRIA, GETARIAKO UDAL-MUGARTEKO MALKORBE HONDARTZAN  
TERRAZA DUEN KANTINA BAT INSTALATZEKO ETA USTIATZEKO EMAKIDA BAT  
EMATEKO LEHIAKETA ARAUTZEN DUENA

## I

## XEDAPEN KOMUNAK

## 1.– Xedea.

Lehiaketaren xedea da hautatzea itsaso eta lehorraren arteko jabari publikoko ondasunak okupatzeko administrazio-emakida bat emateko eskaintzarik onena, Malkorbeko hondartzan terraza atxikia duen kantina bat instalatu eta ustiatzeko.

## 2.– Izaera.

1) Agiri honen bidez, oinarriak ezartzen dira aurreko apartatuan aipatu den administrazio-emakida emateko deitzen den lehiaketa arautzeko.

2) Hemen erregulatzen den prozedurak izaera administratiboa du, eta emakida horren prozedura prestatzen du. Hala, prozedura horren aurreko fase moduan txertatzen da, eta lehiaketan hautatzen denari izapidetze-eskubidea ematen dio, kostaldeeii buruzko araudian emakida emateko ezarritakoaren arabera, hautatuak aurkeztu duen dokumentazioan oinarrituta.

3) Lehiaketa hemen ezarritakoaren arabera arautuko da: baldintza orokorren eta preskripzio teknikoen agiri hau, kostaldeeii buruzko legeria (22/1988 Legea, uztailaren 28koa, Kostaldeeii buruzkoa; 876/2014 Errege Dekretua, Kostaldeeii buruzko Erregelamendu Orokorra onartzen duena, eta 41/2010 Legea, abenduaren 29koa, Itsas Ingurunea babestekoa), 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena, eta 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena.

4) Lehiaketaren adjudikaziodunak uko egiten badio emakida izapidetzeari edo ez badiu onesten emakida emateko ezarritako baldintzak, espedientea baliogabe deklaratu da, eta eraturako fidantza galduko da. Portuen, Itsas Gaien eta Itsasertzaren Zuzendaritzak aukeran izango du prozedura huts deklaratzeko; emakidaren izapideak lehiaketako hurrengo sailkatuarekin hastea, beste bat deitu beharrik gabe; beste lehiaketa bat deitzea, edo emakidaren xedea beste era batera kudeatzea.

## 3.– Emakidaren kokapena eta azalera.

1) Oinarrien agiri honen bidez adjudikatu nahi den azalera Getariako udal-mugarterko Malkorbe hondartzako arkupeetan dago. Azalera hori terraza duen kantina bat instalatu eta ustiatzeko erabiliko da, eta ezin izango ditu azalera hauek gainditu: eraikuntza itxiak 62 m<sup>2</sup>, terraza itxiak 40 m<sup>2</sup> eta terraza irekiak, elementu desmuntagarriekin batera, 25 m<sup>2</sup> –atxikitako planoaren arabera banatuta (IV. eranskina)–.

2) Azalera, hainbat hamarkadatan instalatu da kantina bat hondartzak ustiatzeko denboraldian, eta, hortik abiatuta, tokiko biztanleek adierazi dute hondartzako erabiltzaileei zerbitzua urte osoan zehar emango dien instalazio bat nahi dutela inguruan, ezaugarri horiekin, nahiz eta instalazio horiek soilik ireki baldintza meteorologikoak ezin hobeak diren egunetan. Zuzendaritzak kontuan

hartu du interes hori. Horretarako, janaria eta edariak saltzen dituen establezimendu bat instalatu beharko da, zeinak sukaldaritzaren, ostalaritzaren eta aisialdiaren arloan indarrean dagoen legeria bete beharko baitu.

3) Kostaldeei dagokienez, establezimenduak eta hari lotutako terraza-guneak Kostaldeen Erregelamendu Orokorra onartzen duen urriaren 10eko 876/2014 Errege Dekretuaren 69. artikuluko zehaztapenak bete beharko dituzte.

4) Lehiaketa honetatik kanpo geratzen da arestian adierazitakoez bestelako zeinahi azalera, eta, beraz, ez da inolako aldaketarik onartuko okupatzekoa den erabilera eskusiboko gehieneko azalera, bederen guztiz ezinbestekoa ez bada baimenak eta lizentziak lortzeko (hala nola ke-irteerak eta antzekoak); edozein kasutan, gehikuntzak behar bezala justifikatuta egon beharko du.

4.– Hondartzen zerbitzurako janaria eta edariak saltzen dituzten establezimenduen baldintzak.

1) Kostaldeei buruzko Erregelamendu Orokorrak horrelako establezimenduak erregulatzen ditu 68. artikuluan (hondartza naturalei buruzkoa) eta 69. artikuluan (hiri-hondartzei buruzkoa). Instalazio finko horien okupazioa 200 metro koadrokoa izan daiteke gehienez, behar bezala justifikatutako salbuespenezko kasuetan izan ezik; haietatik 150 metro koadro eraikuntza itxiarenak izan daitezke, eta gainerakoak terraza itxiarenak, bisten iragazkortasuna bermatuko duten elementu desmuntagarrien bidez. Azalera horri okupazio ireki eta desmuntagarriko beste 70 metro koadro gehitu ahal izango zaizkio, baita komun-gune bat ere –gehienez 30 metro koadrokoa izango da, publikoa eta doakoa bada–. Kasu honetan, ez da aurreikusten komunak jartzeko beharrik, inguruan badaudelako komun publikoak. Azalera bat itxia izango da estalkia badu eta lau paramentuetako bik baino gehiagok inguratzen badute alboetan; halakotzat hartuko dira, halaber, toloak edo posizio okerrean airearen zirkulazioa eragozten duten antzeko elementu mugikorak.

2) Terrazak ostalaritza-establezimenduekin lotutako espazioak izango dira, zolatuak edo ez, eraikuntza itxitik kanpokoak eta establezimenduen ustiapenaren aldi baterako edo etengabeko osagarri direnak. Ondasun higigarriak edo instalazio desmuntagarriak kokatu ahal izango dira eta, batzuetan, jarduera gauzatzea errazten duten elementu hertsiki lagungarriak –ez da baimenduko haien izaera hertsiki lagungarria desitxuratzen duen beste inolako erabilerarik–.

3) Instalazioetarako zerbitzu-eroanbide guztiek lurpekoak izan beharko dute.

4) Zuzendaritzak kokapena aldatzea baimendu ahal izango du interes publikoko arrazoiengatik. Ezartzen diren azalera gehienekoak dira. Lizitatzailleek, eskatzen duten ustiapen-azalera zehazteko, konfigurazioa behar bezala mugatzen duen krokis bat definitu beharko dute, eta, eskabidean terraza irekiaren instalazioa sartuz gero, bertan kokatuko diren elementu higigarrien gehieneko kopurua (mahaiak, aulkiak, eguzkitakoak) zehaztu beharko dute. Instalazioen tipologia inguru-nearekin harmonizatu beharko du. Kalitate oneko material egokiak eta itxura estetikoa izango ditu, eta kontserbazio-egoera onean egongo da.

5) Nolanahi ere, martxan jartzeko beharrezkoak diren obra edo ekipamenduen instalazioa adjudikaziodunaren kargura izango dira, eta lehiaketatik kanpo geratuko da arestian aipatutakoez bestelako edozein azalera; beraz, ez da inolako aldaketarik onartuko okupatu beharreko erabilera eskusiboko gehieneko azalaren gainean.

5.– Deialdiaren publikotasunari buruzko informazioa.

1) Lizitazio-iragarkia Euskadiko Kontratazio Publikoaren Plataformako Kontratatzailearen Profileen argitaratuko da. Era berean, Kostaldeen Erregelamendu Orokorra onartzen duen urriaren 10eko 876/2014 Errege Dekretuaren 160. artikuluan xedatutakoaren arabera, deialdia

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Euskadiko Kontratazio Publikoko Plataformaren Kontratatzailearen Profilean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, balizko lizitatzailleek dokumentu hauek izango dituzte eskura plataforma horretan, azter ditzaten: oinarrien agiri hau, okupazio- eta ustiapen-emakida arautuko duen baldintza-agiria eta dagozkion eranskinak. Horrez gain, informazio hori guztia eskuragarri egongo da Eusko Jaurlaritzako Portuen, Itsas Gaien eta Itsasertzaren Zuzendaritzaren web-orrian.

2) Portuen, Itsas Gaien eta Itsasertzaren Zuzendaritzak emandako dokumentazioari buruzko kontsultak idatziz egin beharko dira Euskadiko Kontratazio Publikoaren Plataformaren bitartez, proposamenak jasotzeko epearen barruko azken eguna amaitu baino zazpi (7) egun lehenago, gutxienez. Portuen, Itsas Gaien eta Itsasertzaren Zuzendaritzak lizitatzailleek eskura jarriko du erantzundako kontsulten zerrenda, aipatutako plataforman.

#### 6.– Aurkeztu behar den proiektua.

1) Administrazioak adjudikaziodunari entregatuko dizkio arestian adierazitako azalerak, egun dauden egoeran, eta, beraz, adjudikaziodunak beharrezkoak diren jarduketak eta obrak egin beharko ditu haiek egokiro ustiatzeko. Aukeratutako eskaintzaren arabera izango dira egin beharreko obrak. Obrok aurreproiektuan edo oinarritzako proiektuan –entregatu behar den dokumentazio teknikoaren parte da– definituta egon beharko dute.

2) Eskaintzaren egileak obra eta jarduketan programazioa proposatu beharko du. Azken horiek behe-denboraldian egingo dira, hondartzara jende gehien joaten den garaian hondartzako erabil-tzaileei ez eragiteko.

3) Instalazioa amaituta –emakidaren bidez onartu beharko da alde zuzenetik–, emakidaren titularrak hura aitortzeko eskatuko dio zuzendaritza honi, idatziz. Planoa jaso, akta egin, eta, ondoren, onartu egingo da.

#### 7.– Eskabidea egiteko betekizunak.

1) Lehiaketan parte hartu ahal izango dute jarduteko gaitasun osoa duten pertsona fisiko edo juridiko espainiar edo atzerritar guztiek, baldin eta kaudimen ekonomiko eta finantzarioa eta kaudimen tekniko eta profesionala egiaztatzen badituzte eta kontratatzeke debekurik ez badute.

2) Pertsona juridikoak emakiden adjudikaziodun izan ahalko dira soil-soilik beren estatutuen edo sortze-arauen arabera berezkoak dituzten helburu, xede edo jarduera-eremuaren barruan jasotzen diren prestazioen emakidei gagozkiela, eta emakida behar bezala egikaritzeko behar besteko giza elementuak eta elementu materialak dituen antolamendua izan beharko dute.

3) Europar Batasuneko estatu kideetako enpresa ez-espainiarrek kontratatzeke gaitasuna dute, baldin eta, enpresa horiek ezarrita dauden estatuko legeriaren arabera, kontratuaren xede den prestazioa egiteko gaituta badaude.

4) Europar Batasunekoak ez diren estatuetako pertsona fisiko edo juridiko atzerritarrek lehiaketan parte hartu ahal izango dute, baldin eta, aurreko paragrafoan ageri diren betekizunak betetzeaz gain, hauek ere betetzen badituzte:

– Espainiako nazionalitatea duten pertsonentzat elkarrekikotasuna duen estatu batekoa izatea.

– Egoitza fiskala Espainiako Estatuan izatea.

– Estatuko kontratuen legeriak atzerritarrekin kontratatu ahal izateko eskatzen dituen baldintzak betetzea.

Horrek guztiak ez du ezertan eragotziko atzerritarrei emakida emateko lege berezietan ezarritakoa.

5) Lehiaketan aurkeztu ahalko dira xede horretarako aldi baterako eratzen diren enpresa-elkar-teak, baina ez da beharrezkoa izango eskritura publikoan formalizatzea, harik eta emakida beren alde adjudikatu arte.

6) Lizitaziotik kanpo geratuko dira, automatikoki, Sektore Publikoko Kontratuen Legeak aurrei-kusten duen kontratatzeke debekuren bat daukaten pertsona fisikoak edo juridikoak eta hauek:

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak emandako baimenei edo emakidei dagokienez ezarritako betebeharrak bete ez dituztenak.

– Aipatutako tituluren bat izan edo eduki arren, ordainketa-betebeharrak egunean ez dituztenak.

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrarekin edozein motatako zorrak dituztenak.

7) Arestian xedatutakoak eragina izango du, era berean, baldin eta, enpresok gobernatzen dituzten pertsonak edo beste inguruabar batzuk direla-eta, sumatu badaiteke aipaturiko debeku-ren bat izan duten enpresen jarraipena direla edo, eraldaketaz, bat-egitez edo oinordetzaz, halako enpresetatik eratortzen direla.

## II

### ADJUDIKAZIO-PROZEDURA

#### 8.– Proposamenak aurkeztea.

Proposamenak aurkezteak badakar agiri honetako oinarriak eta emakidaren baldintzak onestea, bai eta erantzukizunpeko adierazpena aurkeztea ere, adieraziz parte hartzeko eskabidea egiten duenak betetzen dituela emakida eskuratzeko eskatzen diren baldintza guztiak.

#### 9.– Proposamenak aurkezteko epea eta tokia.

1) Deialdi honen bidez deitzen den lehiaketan parte hartzeko eskabideak Euskadiko Kontratazio Publikoaren Plataforman aurkeztu beharko dira:

<https://www.contratacion.euskadi.eus/hasiera/>

2) Horretarako, 15 egun baliodun izango dira, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Euskadiko Kontratazio Publikoaren Plataformako Kontratatzailearen Profilaren ira-garki-taulan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

3) Eskatzaile bakoitzak ezin izango du proposamen bat baino gehiago aurkeztu, ezta aldi baterako enpresa-elkarteetan proposamenik sinatu ere, baldin eta bakarka aurkeztu badu, edo, halaber, ezin izango du aldi baterako enpresa-elkarte batean baino gehiagotan agertu. Baldintza hori betetzen ez bada, ez da onartuko baldintza betetzen ez duenak aurkeztutako proposamenik.

4) Prozedura izapidetzen ari den bitartean, betiere adjudikazioa egin aurretik, enpresa lizita-tzaile baten nortasun juridikoa azkentzen bada bat-egitearen, zatiketaren edo enpresa-ondarea eskualdatzearen ondorioz, sozietate xurgatzaileak, bat-egitearen ondoriozkoak, zatiketaren onu-radunak edo ondarea eskuratzearen ondoriozkoak ordeztuko du lehengoa prozeduran, Portuen, Itsas Gaien eta Itsasertzaren Zuzendaritzaren aurrean egiaztatzen baditu agiri honetan eskatzen diren betekizunak.

#### 10.– Proposamenak aurkezteko modua.

1) Lizitazio hau elektronikoa baino ez da; beraz, lizitatuzaileek formatu elektronikoa prestatu eta aurkeztu beharko dituzte eskaintzak, nahitaez, Euskadiko Kontratazio Publikoaren Plataformaren lizitazio elektronikoko zerbitzuak erabiliz. Ez da onartuko horrela aurkezten ez den eskaintzarik.

2) Hiru (3) gutun-azal elektronikotan bidaliko dira proposamenak eta haiekin batera doazen gainerako dokumentuak (guztiak osatzen dute eskaintza), 1., 2. eta 3. zenbakia adierazita gutun-azaletan.

3) Dokumentu eta gutun-azal guztiak lizitatuzaileak edo haren baliozko ordezkariak izenpetu beharko ditu. Lizitatuzaileek izenpe elektronikoa aitortua erabiliz izenpetu beharko dute. Izenpe hori ziurtapen-zerbitzuen emaile batek eman behar du, eta lizitatuzailearen proposamenaren zein hari lotutako dokumentu guztien nortasuna eta osotasuna bermatu beharko ditu.

4) Aldi baterako enpresa-elkartea bada, elkarte bakoitzaren datuak adierazi behar dira, eta gutun-azalak elkarte osatzen duten enpresa bakoitzeko ordezkariak izenpetu behar dituzte.

5) Lizitatuzaileei gomendatzen zaie proposamenak plataformaren bidez aurkezteko software-bete-kizunak behar besteko aurrerapenaz egiazta ditzaten, eskaintzak izenpetu eta bidali aurretik.

6) Eskaintzek ez dute birus informatikorik izango, ez eta programa edo kode maltzur zein kaltegarrikerik ere. Lizitatuzaileei dagokie dokumentu guztiak aztertzea antibirusen bat erabiliz; bestetik, Portuen, Itsas Gaien eta Itsasertzen Zuzendaritzak dokumentuen edukia eskuratu ezin badu, lizitatuzailearen erantzukizuna baino ez da izango.

7) Balorazioan, eskaintza baztertzeko arrazoia izango da adierazitako dokumentazioa ez aurkeztea. Bestalde, ez dira onartuko, ez-egiteak, akatsak edo ezabaketa-zirriborroak dituztelako, proposamenak dakarren eskaintza egokiro ezagutzea eragozten dutenak; hala eta guztiz ere, balorazio-batzordeak egokitzat jotzen dituen argibideak eskatu ahalko ditu.

8) Lizitatuzailearen batek uste badu haren eskaintzak dokumentazio konfidentziala dakarrela, adierazpen osagarri bat erantsi beharko du 1. gutun-azalean, eta bertan adierazi beharko du zer dokumentu administratibo eta tekniko eta datu diren, lizitatuzailearen ustez, konfidentzialtzat hartzeko modukoak. Inguruabar hori, gainera, argi eta garbi jaso beharko da (gaininprimatuta, bazterrean idatzita edo beste edozein modutan) halakotzat adierazitako dokumentuan bertan. Enpresa lizitatuzaileek aurkeztutako dokumentuak eta datuak isilpekotzat edo konfidentzialtzat jo daitezke, baldin eta dokumentu eta datu horiek hirugarrenei zabaltzea beren merkataritza-interes legitimoen aurkakoa gerta badaiteke, sektoreko enpresen arteko lehia leialari kalte egin badiezaioke edo DBLOn ezarritako debekuen barruan badaude. Esandako adierazpen hori aurkezten ez bada, ulertuko da ezein dokumentu edo datu ez duela izaera hori.

9) Lizitatuzaileek euskaraz edo gaztelaniaz aurkeztuko dituzte eskatutako dokumentu guztiak, baina dokumenturik aurkezten bada beste hizkuntza batean, itzulpen ofiziala aurkeztu beharko da aipatutako hizkuntzetatik batean.

#### 11.– Proposamenen edukia.

Gutun-azal bakoitzean, dokumentu hauek jasoko dira:

– 1. gutun-azal elektronikoa. Administrazio-dokumentazioa. Jarduteko gaitasuna. Kaudimen ekonomiko eta finantzarioa eta kaudimen tekniko eta profesionala:

a) Eskabidea aurkezten duenaren nortasuna egiaztatzen duen dokumentazioa (NAN/IFZ), bai eta eskatuzaileak ordezkartza-ahalordea baduela egiaztatzen duena ere, hala badagokio.

b) Administrazioarekin jarduteko eta kontratatzeko gaitasun osoa duela egiaztatzen duen erantzukizunpeko adierazpena edo dokumentazioa, II. eranskineko ereduaren arabera.

Pertsona juridikoak diren enpresaburuen jarduteko gaitasuna hauen bidez egiaztatuko da: eratze-eskritura edo -dokumentua, estatutuak edo fundazio-akta; halakoetan, jaso beharko da jarduera erregulatzen duten arauak zein diren, dagokion erregistro publikoan behar bezala inskribatuta, pertsona juridiko motaren arabera.

Espainiarrak ez diren eta Europar Batasuneko estatu kideetako edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioa sinatu duten estatuetakoa herritarrak diren enpresen jarduteko gaitasuna egiaztatzeko, enpresa horiek inskribatuta egon beharko dute finkatuta dauden estatuko legeriaren arabera dagokien erregistroan, edo, bestela, zinpeko aitortpen bat edo ziurtagiri bat aurkeztu beharko dute, erregelamendu bidez ezarritako baldintzetan, aplikatzekoak diren Europako Erkidegoko xedapenekin bat etorritik.

Gainerako enpresaburu atzerritarrek jarduteko gaitasuna egiaztatu beharko dute, Espainiak dena delako estatuan daukan Diplomaziako Misio Iraunkorraren edo enpresaren egoitza dagoen lurralde-eremuko bulego kontsularraren txostena aurkeztuta.

c) Jarduera ekonomikoaren gaineko zergan alta emanda dagoela eta zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzen duen dokumentua, organo eskudunak emandako ziurtagiria aurkeztuz. Halaber, erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztuta egiaztatu ahalko da. Azken kasu horretan, eskatzailea adjudikaziodun gertatzen bada, bost egun balioduneko epea emango da betekizun horiek behar bezala egiaztatzeko.

d) Eskabidea egiten duenaren kaudimen ekonomiko eta finantzarioari eta gaitasun tekniko edo profesionalari buruzko irizpidea ezagutzeko eta osatzeko aukera ematen duen dokumentazioa edo, hala badagokio, egiaztapen-memoria, proposatutako erabilerei lotutako lanetan esperientzia duela egiaztatzen duen dokumentazioarekin batera, zerbitzuak noiz eta non eman diren adierazita.

e) Bideragarritasuna justifikatzen duen azterketa ekonomiko eta finantzarioa; bertan, behintzat, ustiapen-kontuaren aurreikuspena jaso beharko da, Kontabilitate Plan Orokorren arabera, gutxienez ere bost urtekoa.

f) Adierazpen espresua, oinarrien agiri honetan eta emakidaren baldintza-agirian jasotako baldintzak ezagutzen eta onesten dituela dioena eta, hautatu den eskaintza onartu ezean, Portuen, Itsas Gaiaren eta Itsasertzaren Zuzendaritzak inolako erantzukizunik hartzen ez duela dioena, ez eta, hala badagokio, beharrezkoak diren lizentziak edo baimenak eskuratzeko ezintasunak eragindako kalte-galeren ziozko erantzukizunik ere, interesdunari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik gertatuta ere.

g) Emakida garatzeko behar diren baimen eta lizentzia guztiak eskuratzeko konpromiso espresua, bai eraikuntza-fasean, bai ustiapen-fasean.

h) Toki Ogasunein buruzko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak aurreikusitakoa betetzeko konpromiso espresua, katastroko titularrak administrazio-emakidaren titulartasuna eskuratu duela Katastroaren Zuzendaritza Nagusiari jakinarazteko duen betebeharrari dagokionez.

– 2. gutun-azal elektronikoa. Formulak aplikatuz automatikoki ebaluatzen den eskaintza. Gutun-azal horretan, dokumentu hauek aurkeztu behar dira:

- Egingo den guztizko inbertsioa, I.1 eranskinean agertzen den ereduaren arabera aurkeztuta.

- Emakidaren eskatzailearen prestakuntza, I.2 eranskinean agertzen den moduan azalduta.
- Emakidaren eskatzailearen esperientzia, I.3 eranskinean jasotakoaren arabera azalduta.
- Zerbitzuaren ordutegiak, I.4 eranskinean agertzen den ereduaren arabera azalduta. Aurrekoa-ekin batera, urteko egutegiaren gutxi gorabeherako proposamena erantsi beharko da, hilabeteka banakatuta, eta, bertan, eskainitako ordutegia justifikatzen duten urteko irekiera- eta itxiera-ordutegi guztiak jasoko dira.
- Kontratatu beharreko langileez denaz bezainbatean, hartutako konpromisoari buruzko erantzukizunpeko adierazpena, I.5 eranskineko 13.2.2 apartatuko 2. irizpideko 4. azpi-irizpidean adierazitakoa.

– 3. gutun-azal elektronikoa. Ebaluatzeko balio-judizioa behar duen eskaintza.

Dokumentuaren izena: Getariako Malkorbe hondartzako kantinaren memoria teknikoa, aurre-proiektua edo oinarritzko proiektua.

Zer irizpideri lotzen zaion: Espazioen erabileren banaketa.

Dokumentuan gehitu beharreko informazioa edo datuak: Dokumentuak oinarri honetako 13.2.1 apartatuko 1. irizpideko adjudikazio-irizpideari erantzun beharko dio, eta dokumentazio hau jaso beharko du:

- Itsaso eta lehorraren arteko jabari publikoaren okupazioari buruzko azalpen- eta deskribapen-memoria. Gutxienez, hauek bildu beharko ditu:
  - Jarduera garatzeko beharrezkoak diren instalazioen eta obren ezaugarriak; nolahi ere, hondartzatik kanpo kokatu beharko dira.
  - Okupazio-espazioen eta -azalaren erabileren banaketa (metro koadrotan).
  - Proiektuak kostaldeeii buruz indarrean dagoen araudia betetzen duela dioen adierazpena, eskatzaileak berak sinatua (ikus Kostaldeeii buruzko Erregelamendu Orokorren 97. artikulua).
  - Ustiatzean sortzen diren hondakin-urak husteko aurreikusten den sistema.
  - Sortutako hondakinen kudeaketa.
- Planoak: kokapen-planoak, eskala egokian, bertan adierazita mugatze- eta itsasertz-lerroa eta bide- eta babes-zortasuna, eta oinplanoak, gutxienez 1/1000 eskalan, bertan modu zehatz eta kotatuan adierazita okupatuko den azalera, instalazioak, proiektatutako obrak eta aurreikusitako erabilerak, altxaerak eta sekzio bereizgarriak. Teknikari eskudun batek behar bezala izenpetu beharko ditu planoak.
- Inguruaren argazkiak.
- Azterketa ekonomiko eta finantzarioa, erregelamendu orokorraren 89. artikulua zehazten duenaren arabera.

3. gutun-azalean aurkeztuz gero 2. gutun-azalean ebaluatu beharreko irizpideei buruzko dokumentuak edo datuak, lizitatzailleak aurkeztutako eskaintza automatikoki baztertuko da.

Eskaintzan aurkeztzen diren dokumentuak lotesleak dira. Era berean, gutun-azal bakoitzean jasotako apartatuak egokiro identifikatu beharko dira, dokumentu erantsietan atxikitako eredu

arabera (2. gutun-azalari buruzko dokumentazioa) eta apartatu honetan ezarritako hurrenkerari jarraituz.

Halaber, eskabidea aurkezten duenak intereskotzat jotzen dituen ustiapen-baldintza guztiak eskaini ahal izango ditu. Baldintzok, Administrazioak kontuan hartuz gero, zuzenean aplikatuko zaizkio.

Lizitatzailleek eskaintzaren zenbait apartatutan adierazten dituzten datuak –horiek erabakigarriak dira eskaintza baloratzeko, 11. apartatuan jasotako baldintzetan– ezin izango dira aldatu baimena indarrean dagoen bitartean. Egileek izango dute emandako datu tekniko eta urbanistiko-koen zehaztasunaren eta egiazkotasunaren erantzukizuna (Kostaldee buruzko Erregelamendu Orokorra onartzen duen 876/2014 Errege Dekretuaren 97. artikulua).

#### 12.– Balorazio-batzordearen osaera.

Balorazio-batzordeak ebaluatuko ditu eskaintzak. Kide hauek osatuko dute batzorde hori, azterketaren objektibotasuna bermatzeko:

– Portuen eta Itsas Gaien Zuzendaritzako Herri Lanetako arduraduna, mahaiburua izango dena, kalitateko botoarekin. Ordezkoa: Portuen, Itsas Gaien eta Itsasertzaren Zuzendaritzako arkitekto teknikoa.

– Portuen, Itsas Gaien eta Itsasertzaren Zuzendaritzako Aholkularitza Juridikoaren Arloko arduraduna, idazkari jardungo duena. Ordezkoa: arlo horretako aholkulari juridikoa.

– Portuen, Itsas Gaien eta Itsasertzaren Zuzendaritzako Itsasertzaren Arloko Gipuzkoako arduraduna, batzordekide jardungo duena.

Hizpide darabilgun lehiaketaren Euskadiko Kontratazio Publikoaren Plataformako Kontratazailearen Profilaren iragarki-taulan argitaratuko dira proposamenak aurkezteko azken eguna eta ordua, bai eta 1., 2. eta 3. gutun-azalak irekitzeko egunak eta orduak ere. Hala berean, argitaratuko dira saio bakoitza amaitu ondoren batzordeak/mahaiak egindako aktak, 3. gutun-azalari buruzko balorazio-txostena eta behin betiko adjudikazio-proposamena. Azkenik, Kontratazailearen Profilaren barruan, dagokion lehiaketaren espedientearen «Ebazpena» deritzon erlaitzean, lehiaketa honen xede den emakida ematen duen Portuen, Itsas Gaien eta Itsasertzaren zuzendariaren ebazpena ere argitaratuko da.

#### 13.– Balorazio-irizpideak.

13.1.– Adjudikazio-irizpide bakarra dago: ez.

13.2.– Adjudikazio-irizpide ugari daude: bai.

13.2.1.– Balio-judizio batean oinarrituta kuantifikatzen diren irizpideak: bai.

Irizpidea: espazioen erabileren banaketa.

Haztapena: 11 puntu.

Irizpidea baloratzeko metodoaren deskribapena:

Malkorbe hondartzako kantinako jarduera garatzeko instalazioetako espazioen erabileren banaketaren proposamena (irismena eta deskribapena) baloratuko da. Zehazki, hauek baloratuko dira: proposamenaren zehaztasun-maila, egokitasuna eta garapena, espazioen banaketaren argitasuna eta zehaztasuna, barne-mugimenduen logistikaren egokitzapena eta

instalazio osoaren koherentzia estetikoa. Enpresa lizitzaile bakoitzak aurkeztu behar duen memoriak, aurreproiektuak edo oinarrizko proiektuak dokumentazio grafiko aski jaso beharko du dakarren proposamena ulertzen dela bermatzeko.

Talde honen haztapena, guztira: 11 puntu.

13.2.2.– Formulak aplikatuz automatikoki ebaluagarriak diren irizpideak:

– 1. irizpidea: guztira egingo den inbertsioa.

Haztapena: 20 puntu.

Gehieneko puntuazioa emango zaio eraikinean inbertsiorik handiena egitea aurreikusten duen eskaintzari. Gainerako eskaintzak proportzionalki baloratuko dira.

– 2. irizpidea: ustiapen-plana.

Haztapena: 54 puntu.

Irizpidea baloratzeko metodoaren deskribapena:

• 1. azpi-irizpidea: emakidaren eskatzailearen prestakuntza.

Haztapena: Gehienez ere, 15 puntu.

Irizpidea baloratzeko metodoaren deskribapena:

6 puntu emango dira jatetxeetako, sukaldaritzako edo, oro har, ostalaritzako zerbitzuei lotutako goi-mailako ziklo egiaztatu bakoitzeko.

4 puntu emango dira jatetxeetako, sukaldaritzako edo, oro har, ostalaritzako zerbitzuei lotutako erdi-mailako ziklo egiaztatu bakoitzeko.

0,5 puntu emango dira jatetxeetako, sukaldaritzako edo, oro har, ostalaritzako zerbitzuei lotutako prestakuntzan egiaztatutako 10 ordu bakoitzeko, baldin eta aurreko bi kasuetan sartzerik ez badute; gehienez ere, bost puntu emango dira. Ordu guztiak batu eta metatu ahalko dira, ikastaro batean edo gehiagotan egin diren kontuan hartu gabe.

(Ikus I.2 eranskina)

• 2. azpi-irizpidea: emakidaren eskatzailearen esperientzia.

Haztapena: Gehienez ere, 20 puntu.

Irizpidea baloratzeko metodoaren deskribapena:

2 puntu emango dira ostalaritzaren sektorearekin zuzenean lotuta dauden jardueretan egiaztatutako esperientzia-urte bakoitzeko.

(Ikus I.3 eranskina)

• 3. azpi-irizpidea: zerbitzuaren ordutegia.

Haztapena: 10 puntu.

Irizpidea baloratzeko metodoaren deskribapena:

Gehieneko puntuazioa, 10ekoa, emango zaio urtean zerbitzu-ordu gehien dakarren eskaintzari, eta proportzioan emango zaizkie puntuak gainerako eskaintzei, urteko 1.825 orduko gutxieneko eskaintzatik aurrera. Halako eskaintzari 0 puntu emango zaizkio. (Ikus I.4 eranskina).

Urteko egutegiaren gutxi gorabeherako proposamena aurkeztu beharko da, hilabeteka banakatu, urtea irekitzeko eta ixteko ordutegi guztiak jasotzen dituen.

Oharra: ordutegiak urtaroaren arabera alda daitezke.

• 4. azpi-irizpidea: kontratatuko diren langileak.

Haztapena: Gehienez ere, 9 puntu.

Irizpidea baloratzeko metodoaren deskribapena:

Enplegua sortzea (gehienez ere, 3 puntu): 2 pertsona kontratatzeagatik, puntu 1; 3 pertsona edo gehiago kontratatzeagatik, 3 puntu.

Enplegua sortzea kolektibo jakin batzuetako pertsonak kontratatuz (gehienez ere, 6 puntu):

– Dibertsitate funtzionala duten pertsonak: 0,5 puntu emango dira % 33tik gorako desgaitasun-mailako dibertsitate funtzionala duten pertsonen esleitutako lanpostu bakoitzeko; gehienez ere, 1,5 puntu emango dira.

– Emakumeak: 0,5 puntu emango dira kontratatutako emakume bakoitzeko; gehienez ere, 1,5 puntu emango dira.

– 35 urtetik beherakoak: 0,5 puntu emango da kontratatzen den 35 urtetik beherako pertsona bakoitzeko; gehienez ere, 1,5 puntu emango dira.

– Langabezia duen 55 urtetik gorako pertsonak: 0,5 puntu emango dira langabezia duen 55 urtetik gorakoei esleitutako lanpostu bakoitzeko; gehienez ere, 1,5 puntu emango dira.

(Ikus I.5 eranskina)

Talde honen haztapena, guztira: 75 puntu.

#### 14.– Emakidari buruzko izapideak.

1) Oro har, ohartarazten da eskainitako zerbitzuak huts deklaratu ahal izango direla agirira egokitzen den eskabiderik aurkezten ez bada; lehiaketa hau izapidetzeko aldiaren udalaren edo gaian interesa izan dezakeen beste organismoren baten aurkako txostena jasotzen bada edo, azkenik, itsaso eta lehorraren arteko jabari publikoaren defentsarekin eta kudeaketarekin edo onura publikoko beste xede batzuekin zerikusia duten eta emakida huts deklaratzeko gomendatzen duten arrazoi gerora sortuak badaude.

2) Pertsona edo entitate adjudikaziodunak nahitaez onetsi beharko ditu aurkeztutako eskaintzaren ondoriozko baldintza partikularrak eta Portuen, Itsas Gaien eta Itsasertzaren Zuzendaritzak dagokion ebazpenean ezarritakoak, bai eta agiri honen I. eta III. eranskinetan jasotakoak eta kontratatutako administrazioek beren eskumenen eremuan ezar ditzaketenak ere.

3) Adjudikazioa ebatzi ondoren, adjudikaziodun suertatu den pertsonak edo entitateak itsaso eta lehorraren arteko jabari publikoko ondasunak okupatzeko emakida-eskabide formala aurkeztu beharko du, eta Kostaldee buruzko Erregelamendu Orokorraren 152. artikuluan ezarritakoaren arabera izapidetuko da.

4) Pertsona edo entitate adjudikaziodunak klima-aldaketaren ondorioen bilakaera aurkeztu beharko du, urriaren 10eko 876/2014 Errege Dekretuaren bidez onartutako Kostaldee buruzko Erregelamendu Orokorraren 92. artikuluari jarraikiz.

5) Ofizialki jendaurrean jarri ondoren edo Portuen, Itsas Gaien eta Itsasertzaren Zuzendaritzak hautatutako proiektua aztertu ondoren, eskatzaileak aurkeztu duen berariazko proiektuaren alegazio edo txostenetan oinarrituta, ezinezkoa bada emakida formalizatzea, eta, betiere, proiektua agiri honetan ezarritako baldintza eta preskripzioetara egokituz gero, pertsona edo entitate adjudikaziodunak ez du eskubiderik izango inolako kalte-ordainik jasotzeko lehiaketa eta baimena izapidetzean izandako gastuengatik, eta ez da inolako interesik sortuko itzultitako zenbatekoengatik.

## I.1 ERANSKINA

## GUZTIRA EGINGO DEN INBERTSIOA – FORMULAK APLIKATUZ EBALUAGARRIAK DIREN IRIZPIDEAK

..... jaunak/andreak, bere izenean edo..... deritzon eragile ekonomikoa ordezkatur (eragileak..... IFZ dauka), jakinda «Getariako Malkorbe hondartzako kantina instalatu eta ustiatzeko administrazio-emakidako espediente izapidetzeko eskaintza hautatzeko lehiaketa» izeneko lizitazioaren iragarkia argitaratu dela Euskadiko Kontratazio Publikoko Plataformaren Kontratatzailearen Profilean eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian,

eta jakinda zein diren lehiaketa horretako oinarrien agirian eta emakida erregulatuko duen baldintza-agirian eskatzen diren baldintzak eta betekizunak, eskatzen du izenpetzaileak egin duen eskaintza hautatu dadila, aipaturiko agirietan zehazten diren ondorioetarako. Era berean, konpromisoa hartzen du aipaturiko lokala gaitu, kudeatu eta ustiatzeko, azaldu diren betekizunei zorrotz lotuta, honela:

Inbertsioaren zenbatekoa (BEZik gabe)	BEZa (% 21)	Guztizko prezioa (euro)
..... euro		

Lizitatuzaileak justifikazio-dokumentazio egokia aurkeztu beharko du.

....., 20....(e)ko.....aren.....(a).

Izenpetua:

## I.2 ERANSKINA

## ESKATZAILEAREN PRESTAKUNTZA – FORMULAK APLIKATUZ EBALUAGARRIAK DIREN IRIZPIDEAK

..... jaunak/andreak, bere izenean edo..... deritzon eragile ekonomikoa ordezkatur (eragileak..... IFZ dauka), jakinda «Getariako Malkorbe hondartzako kantina instalatu eta ustiatzeko administrazio-emakidako espedientea izapidetzeko eskaintza hautatzeko lehiaketa» izeneko lizitazioaren iragarkia argitaratu dela Euskadiko Kontratazio Publikoko Plataformaren Kontratatzailearen Profilean eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian,

eta jakinda zein diren lehiaketa horretako oinarrien agirian eta emakida erregulatuko duen baldintza-agirian eskatzen diren baldintzak eta betekizunak, eskatzen du izenpetzaileak egin duen eskaintza hautatu dadila, aipaturiko agirietan zehazten diren ondorioetarako. Era berean, konpromisoa hartzen du aipatutako lokala gaitu, kudeatu eta ustiatzeko, azaldu diren betekizunei zorrotz lotuta, honela:

Eskatzaileak prestakuntza egiaztatu hau dauka ostalaritza-arloan:

Goi-mailako zikloaren izena

Erdi-mailako zikloaren izena

Ikastaroaren izena	Ordu kopurua
Guztira	

....., 20....(e)ko.....aren.....(a).

Izenpetua:

## I.3 ERANSKINA

## ESKATZAILEAREN ESPERIENTZIA

..... jaunak/andreak, bere izenean  
edo..... deritzon eragile ekonomikoa ordezkatzuz  
(eragileak..... IFZ dauka), jakinda «Getariako Malkorbe hondartzako kantina instalatu  
eta ustiatzeko administrazio-emakidako espedientea izapidetzeko eskaintza hautatzeko lehiaketa»  
lizitazioaren iragarkia argitaratu dela Euskadiko Kontratazio Publikoko Plataformaren Kontratatzailearen  
Profilean eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian,

eta jakinda zein diren lehiaketa horretako oinarrien agirian eta emakida erregulatuko duen baldintza-agirian eskatzen diren baldintzak eta betekizunak, eskatzen du izenpetzaileak egin duen eskaintza hautatu dadila, aipaturiko agirietan zehazten diren ondorioetarako. Era berean, konpromisoa hartzen du aipatutako lokala gaitu, kudeatu eta ustiatzeko, azaldu diren betekizunei zorrotz lotuta, honela:

Esperientzia egiaztatu hau dauka: ..... ostalaritzaren sektorearekin zuzenean lotutako jardueretan, ..... (urte kopurua) urteko esperientzia egiaztatua du, honela garatuta:

Aldia	Zein jardueratan aritu den	Establezimendua

....., 20....(e)ko.....aren.....(a).

Izenpetua:

## I.4 ERANSKINA

## ZERBITZUAREN ORDUTEGIAK – FORMULAK APLIKATUZ EBALUAGARRIAK DIREN IRIZPIDEAK

..... jaunak/andreak, bere izenean  
 edo..... deritzon eragile ekonomikoa ordezkatzuz  
 (eragileak..... IFZ dauka), jakinda «Getariako Malkorbe hondartzako kantina instalatu  
 eta ustiatzeko administrazio-emakidako espedientea izapidetzeko eskaintza hautatzeko lehiaketa»  
 izeneko lizitazioaren iragarkia argitaratu dela Euskadiko Kontratazio Publikoko Plataformaren  
 Kontratatzailearen Profilean eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian,

eta jakinda zein diren lehiaketa horretako oinarrien agirian eta emakida erregulatuko duen baldintza-agirian eskatzen diren baldintzak eta betekizunak, eskatu du izenpetzaileak egin duen eskaintza hautatu dadila, aipaturiko agirietan zehazten diren ondorioetarako. Era berean, konpromisoa hartzen du aipatutako lokala gaitu, kudeatu eta ustiatzeko, azaldu diren betekizunei zorrotz lotuta, honela:

Eskainitako zerbitzuaren urteko orduak, guztira
..... ordu/urte

Enpresa lizitatzailerak justifikazio-dokumentazio egokia aurkeztu beharko du (urteko egutegiaren proposamena, hilabeteka banakatua, eskainitako ordutegia justifikatzen duten urteko irekiera- eta itxiera-ordutegi guztiak jasotzen dituen).

....., 20....(e)ko.....aren.....(a).

Izenpetua:

## I.5 ERANSKINA

## KONTRATATUKO DIREN LANGILEAK

(Erantzukizunpeko adierazpena, 2. irizpidea, 4. azpi-irizpidea, 12.2.2 klausula)

..... jaunak/andreak, bere izenean  
edo..... deritzon eragile ekonomikoa ordezkatzuz  
(eragileak..... IFZ dauka), jakinda «Getariako Malkorbe hondartzako kantina instalatu eta ustiatzeko administrazio-emakidako espedientea izapidetzeko eskaintza hautatzeko lehiaketa» lizitazioaren iragarkia argitaratu dela Euskadiko Kontratazio Publikoko Plataformaren Kontratatzailearen Profilean eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian,

## ADIERAZTEN DU:

Konpromiso leiala hartzen duela emakidaren xede den Getariako Malkorbe hondartzako kantinaren zerbitzua emateko..... (kopurua) lanpostu sortzeko.

Konpromisoa hartzen duela sortu beharreko lanpostu guztietatik \_\_(kopurua)\_\_\_ lanpostu esleitzeko dibertsitate funtzionala duten pertsoneri (% 33tik gorako desgaitasun-maila duten pertsoneri).

Konpromisoa hartzen duela sortu beharreko lanpostu guztietatik \_\_(kopurua)\_\_\_ lanpostu esleitzeko emakumeei.

Konpromisoa hartzen duela sortu beharreko lanpostu guztietatik \_\_(kopurua)\_\_\_ lanpostu esleitzeko 35 urtetik beherako pertsoneri.

Konpromisoa hartzen duela sortu beharreko lanpostu guztietatik \_\_(kopurua)\_\_\_ lanpostu esleitzeko langabezian dauden 55 urtetik gorako pertsoneri.

....., 20....(e)ko.....aren.....(a).

Izenpetua:

## II. ERANSKINA

..... jaunak/andreak,  
 bere izenean edo..... ordezkatuz  
 (helbidea:.....);  
 harremanetarako telefono-zenbakia:.....; helbide  
 elektronikoa:.....),

emakida eskatzen du itsaso eta lehorraren arteko jabari publikoa okupatzeko, Getariako (Gipuzkoa) Malkorbe hondartzan kantina eta terraza bat instalatu eta ustiatzeko helburuarekin.

Adierazten du jarduteko legezko gaitasun osoa duela, ez duela Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 71. artikuluan Administrazio Publikoarekin kontratatzeari buruz ezarritako debekurik, eta ez duela arau-hauste astunagatiko zehapenik jaso indarrean dagoen Kostaldeei buruzko Legearen arabera.

Halaber, adierazten du onetsi egiten dituela administrazio emaileak legez ezartzen dizkion baldintza guztiak.

Aurkezten den dokumentazioa:

– Eskatzailearen eta, kasua bada, ordezkariaren nortasuna egiaztatzen duen dokumentua: eskatzailearen eta ordezkariaren nortasun-agiri nazionalaren/identifikazio fiskaleko zenbakiaren fotokopia, ordezkariaren ahalordearekin. Eratze- edo aldatze-eskrituraren kopia, merkataritza-enpresen kasuan.

– Jarduera ekonomikoen gaineko zergan alta emanda dagoela eta zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzen duen dokumentua edo Portuen, Itsas Gaien eta Itsasertzaren Zuzendaritzak haiek egiaztatu ahal izateko baimen espresua.

Lekua eta data:

Izenpea:

Portuen, Itsas Gaien eta Itsasertzaren Zuzendaritzari zuzendutako eskaera

## III. ERANSKINA

## GETARIAKO UDAL-MUGARTEKO (GIPUZKOA) MALKORBE HONDARTZAKO KANTINA ETA TERRAZA INSTALATU ETA USTIATZEKO EMAKIDA ARAUTUKO DUTEN BALDINTZAK

## 1.– Baldintza partikularrak.

Baldintza orokorren agirikoak (alde batera utzi gabe udalak edo ukitutako beste organismo batzuek ezar ditzaketen baldintza partikularrak).

1) Emakidaren gehieneko epea hogeita lau (24) urtekoa da, okupazioaren zati bat itsasertzean dagoelako. Egokitzen jotzen da emakida bost (5) urterako ematea –gehienez ere hamabost (15) urtera arte luza daiteke–, norgehiagokaren mesedetan, emakida ematea eragin zuten interes publikoko arazoiek beren horretan jarraitzen badute. Emakidadunari emakidaren ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunean hasiko da epea zenbatzen (baldintza orokorren agiriko 2. baldintza).

2).....(e)(a)n aurkeztutako eskaintzarekin bat, eta..... teknikari eskudunak sinatutako proiektuaren arabera, emakida hau 102 metro koadroko gehieneko okupazioari buruzkoa da. Haietatik 62 metro koadro eraikuntza itxiarenak izango dira, eta gainerakoak terraza itxiarenak, bisten iragazkortasuna bermatuko duten elementu desmuntagarrien bidez. Azalera horri gehienez 25 metro koadroko okupazio irekia eta desmuntagarria gehitu ahal izango zaio. Lehendik zegoen eraikuntzaren zati bat biltegi moduan erabiltzeko, udalak biltegiaren erabilera laga behar du, eta zenbaketan sartu da itxitako eraikuntzaren azalera kalkulatzeko (baldintza orokorren agiriko 3. baldintza).

3) Nolanahi ere, abian jartzeko beharrezkoak diren obrak edo ekipamendu-instalazioak adjudikaziodunaren kargura egingo dira, eta 2026ko udako denboraldia hasi baino lehen amaitu beharko dira.

## – Preskripzioak.

1) Emakidaren xede diren instalazioak ustiatzen hasi baino lehen, behar besteko aurrerapenez aitor ditzala eskatuko zaio Portuen, Itsas Gaiene eta Itsasertzearen Zuzendaritza honetako zaintza-zerbitzuari, emandako emakidarekin bat datozela egiaztatze aldera.

2) Ustiapenak eguneko ordutegia izango du, kontuan hartuta ustiapenaren izaera eta hondartzari ematen dion zerbitzua dela. Nolanahi ere, establezimendua 22:00ak baino lehen itxi beharko da.

3) Instalazio horien okupazioa 200 metro koadrokoa izan daiteke gehienez, behar bezala justifikatutako salbuespenezko kasuetan izan ezik; haietatik 150 metro koadro eraikuntza itxiarenak izan daitezke, eta gainerakoak terraza itxiarenak, bisten iragazkortasuna bermatuko duten elementu desmuntagarrien bidez. Azalera horri okupazio ireki eta desmuntagarriko beste 70 metro koadro gehitu ahal izango zaizkio, baita komun-gune bat ere –gehienez 30 metro koadrokoa izango da, publikoa eta doakoa bada–.

4) Janaria eta edaria saltzen dituzten establezimenduetarako instalazioak gutxienez 150 metroko tartearekin kokatuko dira itsaso eta lehorraren arteko jabari publikoan izaera bereko zerbitzua ematen duten beste batzuetatik.

5) Eraikita dagoen eraikuntzari gehitzen zaizkion instalazioak sasoikoak izango dira, eta haien elementu guztiak, desmuntagarriak. Halakotzat joko dira honelako instalazioak:

– Gehienez ere zimendu-obra puntualak behar dituzte –ez dira lursailetik aterako–.

– Serie-elementu aurrefabrikatuz, moduluz, panelez edo antzekoez daude osatuta, obran materialik sortu edo soldadurarik egin gabe.

– Prozesu sekuentzialen bidez muntatu eta desmuntatzen dira, eraispenik gabe jaso daitezke, eta haien elementu guztiak erraz garraiatu daitezke.

6) Instalazioen tipologiak ingurunearekin harmonizatu beharko du. Kalitate oneko material egokiak eta itxura estetikoa izango ditu, eta kontserbazio-egoera onean egongo da.

7) Instalazio desmuntagarrietarako zerbitzu-eroanbide guztiek lurpekoak izan beharko dute. Saneamendu-sistemak bermatuko du hondakin-urak efikaziaz ezabatzen direla eta usain txarrik ez dagoela. Horretarako, instalazioak saneamendu-sare orokorrera konektatu beharko dira, eta debekatuta egongo dira hondartzetako hareari edo bainatzeko uren kalitateari eragin diezaioketen drainatze- edo xurgatze-sistemak.

8) Kantinako eta hondartzako erabiltzaileak modu askean igarotzeko espazio nahikoa bermatu beharko da beti Malkorbeko hondartzara sartzeko arrapala nagusiaren ondoan dauden bi plataformetan –kantinako terraza gisa erabiltzen dira–.

9) Kostaldeei buruzko uztailaren 28ko 22/1988 Legearen 84. artikuluko kanona. Kanonaren kudeaketa eta bilketa Gipuzkoako Probintziako Kostaldeen Zerbitzuaren ebazpen baten bidez egingo da. Zerbitzu horrek jakinaraziko du kanonaren likidazioa. Kanonaren zenbatekoa urtero eguneratu ahal izango da, Kostaldeei buruzko Legearen 84. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

10) Administrazio eskudunak jabari publikoa aldi baterako itxi ahal izango du, inguruabarrek hala gomendatzen dutenean, erabiltzaileen segurtasunaren edo osasunaren gaineko arriskuak saihesteko, edo ohiz kanpoko edo salbuespenezko beste egoera batzuetan, baina itxiera horrek ez du inolako kalte-ordainik eragingo.

11) Emakidadunak bere gain hartuko ditu ur-horniduraren alta eta kontsumoa, dagokion saneamendu-tasa, energia elektrikoaren hargunea eta kontsumoa, eta jarduera garatzeko behar dituen gainerako hornidurak.

Zabor-bilketari gagozkiola, dagokion tasa bere kontura izateaz gain, jardueran sortzen diren hondakinak beren izaeraren arabera tratatu beharko dira, hondakinen bilketa-kudeatzaileak adierazten duenari jarraikiz, eta, hondakinon izaera kontuan harturik, gaikako sailkapen egokia egin beharko da.

12) Emakidaren titularrak bere arriskuz eta menturaz hartuko du jarduera kudeatzeko ardura. Administrazioa ez da inola ere izango emakidadunak bere gain hartutako betebeharren erantzule, ezta emakidadunak hirugarrenei eragindako kalte edo galerena ere. Ustiapena kudeatzeko behar diren langile guztiak emakidaren titularraren kontura egingo dira, eta haren kargura egongo dira.

13) Bereziki debekatuta dago era guztietako material arriskutsu, toxiko edo sukoiak biltegitratzea, bai instalazio berrietan, bai lehendik dagoen eraikuntzako lokaletan, udalak emakidan sartzeko laga ditzakeenetan.

14) Emakidaren xede diren instalazioak aseguratuta beharko dira, eta aseguru-polizaren kopia entregatu beharko da Portuen, Itsas Gaietan eta Itsasertzaren Zuzendaritzaren Gipuzkoako Ordezkaritzan.

## 2.– Baldintza orokorrak.

– Xedapen orokorrak:

1) Emakida hau –ez dira ez jabari publikoa ez Estatuaren jabarizko ahalmenak lagako– Kostaldeei buruzko uztailaren 28ko 22/1988 Legean xedatutakoaren arabera ematen da, Itsasbartzerraren babes eta erabilera jasangarriari buruzkoa den eta Kostaldeei buruzko uztailaren 28ko 22/1998 Legea aldatzen duen maiatzaren 29ko 2/2013 Legeak sartutako aldaketekin, eskubide partikularrak alde batera utzita eta hirugarrenak ezertan eragotzi gabe.

2) Emakida hau baldintza partikularren eta preskripzioen agirian (aurrerantzean, BPPA) ezarritako eperako ematen da. Epea ezin izango da luzatu, non eta BPPAn ez den espresuki onartzen luzapena egin daitekeela. Zenbaketa emakidadunari emakida eman zaiola jakinarazi eta hurrengo egunean hasiko da.

3) Fakultatibo eskudunak sinatutako proiektuari jarraikiz egingo dira obrak, BPPAn jasotako izenaren eta dataren arabera, bertan ezartzen diren zehaztapen eta aldaketekin. Obrak emakidadunaren arriskuz eta haren erantzukizun eskusiboaren pean egingo dira. Hark, fakultatibo eskudun bat aukeratu, eta obren zuzendari izendatu beharko du. Dagokion elkargo profesionalaren oniritzia izan beharko du, itsasertza kudeatu eta antolatzeke eskumena duen organoaren aurrean egiaztatuko denaren arabera.

4) Emakida honetan, itsasertza kudeatu eta antolatzeke eskumena duen sailak ez du erantzukizunik hartuko obra eta instalazioen proiektuari eta haien egikaritze eta ustiapenari lotuta, ez hirugarrenei dagokienez, ez emakidadunari dagokionez.

5) Emakida hau emateak ez du titularra salbuesten legez dagozkion lizentziak eta baimenak lortzetik (bereziki, hondakin-urak itsasora isurtzekoa edo, hala badagokio, saneamendu-sare orokorrera konektatzekoa).

6) Emakida honek ez du baimenik ematen emakidaren mugetatik kanpo jarduera osagarriak egiteko (adibidez, ustiapeneko hondakinak metatu, biltegitatu edo gordetzea), ezta ikus-entzunezko publizitatea egiteko ere, salbu eta emakidaren titulua eta erabilera adierazteko denean –itsasertza kudeatu eta antolatzeke eskumena duen organoaren alde aurreko adostasuna izan beharko da–.

7) Emakidadunak bere bizkar instalatu eta kontserbatu beharko du lurreko behin-behineko eta behin betiko seinaleztapena (sarbideetakoa eta erabilera publikoko guneetakoa barne), BPPAk edo itsasertza kudeatu eta antolatzeke eskumena duen organoak zehaztutako moduan eta epean. Emakidaren itsas izaera dela-eta beharrezkoa bada, emakidadunaren betebeharra izango da Estatuko Portuak izeneko organismo publikoak agindutako baliza-seinaleak instalatu eta mantentzea, bere kostuz. Organismo horrek, halaber, seinaleok ikuskatu, eta obrak egin bitartean jarri behar den behin-behineko balizajea ezarriko du.

Horretarako, obrak zuinkatu aurretik, haien kokapen-planoak eta oinplanoa aurkeztu beharko ditu. Geroago, seinaleak (balizajea, itxurak eta irismenak) jakinarazten zaizkion egunetik zenbatzen hasita sei hilabeteko epean, kasuan kasuko proiektua aurkeztu beharko du, Estatuko Portuak izeneko organismo publikoak onar dezan.

8) Emakidan jabetza partikularreko lursailak badaude, emakidaren ustiapenerako ezinbesteko unitate bat osatzen dutelako, obren zuinketa egin aurretik edo hura egitean, nahitaez egingo da lursailok jabari publikoari entregatzeko akta. Bertan izango dira ondarearen arloan eta itsaso eta lehorraren arteko jabari publikoaren kudeaketa eta antolamenduaren arloan eskumena duten ministerioen ordezkariak, itsasertza kudeatu eta antolatzeke eskumena duen sailaren ordezkaria eta emakidaduna. Azken horrek dagokion erregistro-ziurtagiria aurkeztu beharko du.

Emakida indarrean dagoen bitartean, lursailok emakidan aurreikusitako erabilera izango dute, eta, azkentzen denean, jabari publikoaren kalifikazio juridikoa izaten jarraituko dute.

9) Emakidadunak hogeita hamar (30) eguneko epean aurkeztu beharko du emakidaren titulua, hura eman zaiola jakinarazi eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, kasuan kasuko bulego likidatzailean, hala badagokio, ondare-eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga orokorra ordaintzeko, gaur egun zerga horren inguruan indarrean dagoen testu bateginaren arabera. Horrez gain, eskatu ahal izango zaio horren egiaztatzea bidaltzeko itsasertza kudeatu eta antolatzeke eskumena duen organoari. Orobat, epe berean (30 egun), itsasertza kudeatu eta antolatzeke eskumena duen organoari aurkeztu beharko zaio, kasua bada, Gordailu Kutxan edo haren edozein sukurtsaletan

behin betiko fidantza eratu izana egiaztatzen duen jatorrizko frogagiria –fidantza hori jabari publikoan egin beharreko obra eta instalazioen aurrekontu osoaren % 5 izango da–.

10) Emakidadunak emakidaren mugaketaren mugarriak aldatu eta kontserbatu beharko ditu, Kostaldeen Zerbitzu Periferikoak adierazten dion moduan.

11) Emakidadunak bere gain hartuko du baimendutako obrek, itsasertza kudeatu eta antolatzeako eskumena duen sailaren iritziz, hondartzetan eta alboko edo gertuko kostetan zuzenean edo zeharka eragin ditzaketen kalte-galeren erantzukizuna. Ondorio horietarako, kalteak konpontze aldera beharrezkoak diren obrak jasotzen dituen proiektua aurkeztu beharko du, bere bizkar, adierazten zaion epean.

Itsasertza kudeatu eta antolatzeako eskumena duen sailak proiektua onetsita, emakidadunak adierazten zaion epean egingo ditu obrak.

– Kanonak, tasak eta gastuak.

12) Emakida jakinarazten den egunetik aurrera, emakidadunak modu aurreratuan eta sei hilean behin ordainduko dio okupazio- edo aprobetxamendu-kanonaren zenbatekoa Altxor Publikoari, itsaso eta lehorraren arteko jabari publikoa kudeatu eta antolatzeako eskumena duen ministerioak finkatutako moduan eta zenbatekoan.

Administrazioak kanona berrikusi ahal izango du itsaso eta lehorraren arteko jabari publikoa kudeatu eta antolatzeako eskumena duen ministerioak finkatzen duen epean, hura finkatzeko erabili den oinarriaren balioak izaten duen gehikuntzaren proportzioan.

Orobat, hala badagokio, hamabost eguneko epean, ordainagiriak bidaliko ditu, Probintziako Kostaldeen Zerbitzua edo Demarkazioa jakinaren gainean egon dadin. Haien kopia ere bidaliko dio autonomia-erkidegoko itsasertza kudeatu eta antolatzeako eskumena duen organoari.

13) Emakidadunaren kontura izango dira obren zuinketa eta azken aitortza egiteagatik sortzen diren gastuak, bai eta obrak ikuskatu eta zaintzeagatik sortzen direnak ere.

– Obrak zuinkatzea.

14) Bosgarren, zortzigarren eta bederatzigarren baldintzetan ezarritako izapideak beteta, emakidadunak zuinketa egiteko eskatuko dio, idatziz, itsasertza kudeatu eta antolatzeako eskumena duen organoari –obrak epearen barruan hasi ahal izateko behar besteko aurrerapenarekin egingo du hori–. Itsasertza kudeatu eta antolatzeako eskumena duen organoko teknikariek egingo dute zuinketa, emakidaduna eta obra-zuzendaria bertan direla. Akta egin, eta plano orokorrak eta xehatuak jasoko dira, eta, ondoren, agintari eskudunari dagokio haiek onartzea, kasua bada. Zuinketa-eskabidearekin batera, eraikuntza-proiektua (egikaritze-proiektua), behin betiko fidantza eratu dela egiaztatzen duen frogagiria eta, hala badagokio, beharrezkoa den gainerako dokumentazioa aurkeztu beharko dira. Planoetan, gutxienez, erreferentzia finko nahikoekin adierazi beharko dira elementu hauek:

a) Jabari publikoaren mugaketa (itsaso eta lehorraren arteko gunearen barruko eta kanpoko lerroak eta, hala badagokio, hondartza-lerroa edo itsaso eta lehorraren arteko jabari publikoko beste ondasun batzuen).

b) Kasua bada, itsas jabari publikoko sarbide publikoak, bide publikoekin konektatzen diren arte.

c) Emakidan utzitako jabari publikoa eta proiektuko obrekin duen okupazioa, bai eta hura definitzeko beharrezkoak diren sekzio guztiak ere.

d) Hala badagokio, estatuaren itsas jabari publikoan sartzen diren jabetza partikularreko lursailak.

e) Erabilera publiko eta pribatuko guneak.

f) Beren balioespenengatik kanon desberdinak bete behar dituzten guneak.

Aktan eta planoetan, aipatutako azalaren neurketak eta haien izaera jasoko dira.

– Obrak egikaritzea.

15) Emakidadunak obrak hasi eta osorik amaituko ditu, BPPAn zehaztutako epeen barruan, biak emakida jakinarazi eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

16) Emakidadunak ezin izango du jabari publikoko espaziorik okupatu obrak egikaritzeko, itsasertza kudeatu eta antolatzeke eskumena duen organoak horretarako bereziki baimendutakotik kanpo.

17) Obrak hasteko epea amaitu eta obrak hasi ez badira eta emakidadunak luzapenik eskatu ez badu, Administrazioak, beste izapiderik egin gabe, emakida baliogabe edo deusez deklaratu du. Eratutako fidantza autonomia-erkidegoarentzat izango da.

18) Itsasertza kudeatu eta antolatzeke eskumena duen organoak uneoro ikuskatu ahal izango du obren egikaritzea, egiaztatzea ea obrak bat datozen emakidarako oinarritzat hartu den proiektuarekin.

Desbideratzeak daudela ikusten badu, obrak geldiarazteko aginduko du, Kostaldee buruzko Legearen 103. artikuluan ezarritako moduan, eta, hala badagokio, dagozkion espedienteak irekiko ditu eta, bereziki, azkentze-espedienteak, aldaketak oso handiak direnean.

19) Emakidadunak luzapenik eskatu ez badu eta obrak amaitzeko epea betetzen ez badu, itsasertza kudeatu eta antolatzeke eskumena duen sailaren hautua izango da epe hori luzatzea, obren aurrekontu osoaren ehuneko hamarrera arteko zehapena jartzeko aukerarekin edo, bestela, emakida azkentzeko espedienteari hasiera ematea. Luzapena ematen bada, baldintza horietan eman ahal izango den azkena izango da, eta, beraz, berriz ere betetzen ez bada, emakida azkentzeko espedientea irekiko da, nahitaez.

20) Obrak edo instalazioak amaitu aurretik, emakidadunak emakidari osorik edo zati batean uko egiten badiu, eratutako fidantza galduko du, salbu eta frogatzen badu uko egitearen arrazoia dela beste organismo ofizial batzuek beharrezkoak diren lizentziak eta baimenak ukatu izana. Gainera, itsasertza kudeatu eta antolatzeke eskumena duen sailak kontraktorik erabaki ezean, obrak eta instalazioak bere kostuz kendu beharko ditu, eta emakidaren lursaila okupazio orotatik libre utziko du, adierazitako epean.

– Obrak aitortzea.

21) Behin obrak amaituta, emakidadunak obraren azken ziurtagiria aurkeztuko du, zuzendariak sinatua. Bertan, obra guztiak jaso beharko dira, baita, hala badagokio, hondakin-urak itsasora isurtzeari dagozkionak ere. Halaber, itsasertza kudeatu eta antolatzeke eskumena duen organoari eskatuko dio, idatziz, obren azken aitortza egiteko. Azterketan, haren ordezkari diren teknikariek, emakidadunak eta obra-zuzendariak parte hartuko dute. Akta eta planoak zuinketa-lanen betekizun berberekin egin eta jasoko dira. Baldintza hori betetzen ez bada, emakida azkentzeko espedientea irekiko da, nahitaez.

22) Behin betiko fidantza emakidadunari itzuliko zaio agintari eskudunak obren azken aitortza-akta eta planoak onartu eta urtebetera, hark hala eskatu ondoren. Orduan, obra horiek fidantza ordeztuko dute, eta, bidezkoa denean, emakida honen klausulak bete beharko dira.

– Obrak kontserbatzea.

23) Emakidadunak erabilera-egoera ezin hobean kontserbatu eta mantendu beharko ditu emandako obrak eta lursailak, baita garbitasunaren, higienezaren eta estetikaren ikuspegitik ere. Bere kargura egingo ditu kontserbazio- eta mantentze-lanak eta horretarako beharrezkoak diren

konponketak. Konponketa handiak direnean, emakidadunak aldez aurretik aurkeztu beharko du proiektua, Administrazioak onets dezan, kasua bada.

24) Itsasertza kudeatu eta antolatzeke eskumena duen organoak une oro ikuskatu ahal izango du emandako obren eta lursailen kontserbazio- eta mantentze-egoera, eta emakidaren baldintzak betetzeko zer konponketa eta ekintza egin behar diren adierazi ahal izango du. Emakidadunak obra edo ekintza horiek egikaritu beharko ditu, aurrez zehaztutako epean eta ezarritako moduan.

Emakidadunak ez baditu jarduketa horiek ezarritako epean egiten, itsasertza kudeatu eta antolatzeke eskumena duen sailak zehapen ekonomikoa ezarri ahal izango dio –baimendutako obren aurrekontu osoaren % 10etik beherakoa izango da–, eta beste epe bat emango dio obra egikaritzeko.

Emakidadunak ez baditu konponketak epe berri horretan egikaritzen, emakida azkentzeko espedientea irekiko da.

25) Emakida honetan baimendutako obra guztiak edo gehienak suntsitzen badira, ezinbesteko arrazoiengatik, emakidadunak eskubidea izango du, alde batetik, emakidari uko egiteko, inolako kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik gabe, eta obren hondarrak eraitsi eta kentzeko betebeharrarekin, edo, bestetik, haiek bere bizkar berreraikitzeke, itsasertza kudeatu eta antolatzeke eskumena duen sailak adierazitako epean. Emakidadunaren edo haren mendekoen dolo edo erruz suntsitzen badira, sailarena izango da aurreko aukera, baina emakidadunak emakidari uko egiten ez badio, emakidaren azkentze-espedientea izapidetuko da.

26) Obrak amaitu eta azken aitortza-akta onartu ostean, emakidadunak osorik edo zati batean egiten badio uko emakidari, obrak eta instalazioak Estatuko jabari publikoari entregatu beharko dizkio, edo bere kostuz kendu beharko ditu, itsasertza kudeatu eta antolatzeke eskumena duen sailak erabakitakoaren arabera; azken kasu horretan, lursaila erabat edo partzialki libre utziko du.

– Erabilera eta ustiapena.

27) Emakidadunak ezin izango ditu emandako jabari publikoko lursailak erabili emakidan adierazitakoak ez diren beste erabilera batzuetarako, ezta haietan egikaritutako obrak ere. Horretarako, beste eskabide bat egin beharko du aldez aurretik.

28) BPPAn bestelako eperik adierazi ezean, emandako jabari publikoko obrak eta ondasunak urtebetean erabiltzen ez badira, emakida azkentzeko espedientea irekiko da, nahitaez, non eta ez den arrazoi zuzen batengatik.

29) Emakidaren garrantziagatik eta izaeragatik hala eskatzen bada BPPAn, emakidadunak ustiapen-zuzendari bat izendatu beharko du, nahitaez. Zuzendaria gaian eskumena duen fakultatibo bat izango da, eta itsasertza kudeatu eta antolatzeke eskumena duen organoaren aurrean egiaztatu beharko da haren izendapena.

Modu berean, BPPAn hala eskatzen den kasuetan, obrak eta instalazioak ustiatzeagatik jendeak ordaindu behar dituen gehieneko tarifak aurkeztu beharko ditu emakidadunak, Administrazioak onets ditzan.

30) Emakidaren indarraldian ikusten bada emakidak babesten ez dituen obrak edo erabilera egin direla, itsasertza kudeatu eta antolatzeke eskumena duen organoak haiek geldiarazteke edo eteteko aginduko du, hurrenez hurren, Kostaldeein buruzko Legearen 103. artikuluan xedatutako moduan eta ondorioekin. Egindako arau-hausteek garrantzi nabarmena badute, emakida azkentzeko espedientea ere irekiko da.

– Transferentzia.

31) Emakiden eskualdagarritasunaren harira, Kostaldeei buruzko Legearen 70.2 artikuluan ezarritakoa beteko da, Kostaldeei buruzko Erregelamendu Orokorren 141., 142. eta 143. artikuluetan jasotako prozeduraren arabera.

Ondorio horietarako, eskualdaketa egin aurretik, emakidaren titularrak jakinarazpena bidali beharko dio dagokion probintziako organo eskudunari, eta emakidaren titulartasuna aldatzeko eskatuko dio bertan. Horrekin batera, emakidaren titulartasunaren segidako traktua (eskualdatzailera arte) jasotzen duen dokumentazioa bidali beharko du, bai eta eskualdatuko den instalazioak ebazpen horren baldintzak betetzen dituela dioen adierazpen espresua ere. Eskualdaketa ez da baliozkoa izango organo eskudunak, baldintzak betetzen direla egiaztatu ostean, aldeko txostena egin arte.

*Inter vivos* eskualdatzeetan, azkentzeko arrazoia izango da Administrazioak alde zurreko aitortzarik ez egitea, edo, *mortis causa* eskualdatzeetan, jakinarazpen espresurik ez egitea –Kostaldeei buruzko Legearen 70.2 artikuluan ageri dira eskualdatze horiek–, lege horren 78. artikuluan adierazitakoarekin bat.

– Beste xedapen batzuk.

32) Emakidadunak nahitaez bete beharko ditu emandako jabari publikoari eta bertan garatzen diren obra eta jardueri eragiten dieten indarreko xedapenak edo aurrerantzean emango direnak, batez ere itsas jabariaren antolamenduarenak, eta Defentsa Nazionalerako Intereseko Gune eta Instalazioei buruzko martxoaren 12ko 8/1975 Legearenak. Egikaritzen direnak eta haien erabilera ezin izango dira oztopo izan bide- eta babes-zortasunak eta itsasora irteteko zortasuna egikaritzeko.

– Emakida berreskuratzea.

33) Emakidaren xede diren jabari publikoko lursailak beharrezkoak badira, osorik edo zati batean, onura publikoko deklaraturako jarduerak egin edo obrak egikaritzeko, eta haiek egiteko beharrezkoa bada emakidaren lursailak edo obrak osorik edo zati batean erabiltzea edo eraistea, Administrazioak lursail edo obra horiek berreskuratu ahal izango ditu muga-eguna baino lehen.

Horretarako, emakida berreskuratzeke espedientea hasi, eta entzunaldia emango zaio emakidadunari. Gainera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legean (urriaren 1eko 39/2015 Legea) eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenetan ezartzen diren izapide guztiak beteko dira.

Berreskuratzea Kostaldeei buruzko Legearen 89. artikuluan ezarritakoaren arabera baloratuko da. Horrez gain, emakidadunak askatasunez kendu ahal izango ditu emakidan dauden elementuak, baldin eta azken aitortza-aktan zerrendatu ez badira eta higiezinari modu finkoan lotuta ez badaude, eta haiek kenduta higiezina urratzen edo hondatzen ez bada. Salbuespena izango da Administrazioak haiek berreskuratzea erabakitzen badu.

Obrak hondatuta badaude, Administrazioak erabakiko du haiek egoera onean uzteko egin behar diren gastuen aurrekontua, eta emakidadunari jakinaraziko zaio, onartu baino lehen. Zenbatekoa tasaziotik kenduko da, eta ateratzen den aldea ordainduko zaio emakidadunari.

– Errebokatzea.

34) Administrazioaren esku-hartzerik gabe, emakida emateko oinarri izan ziren kasu fisikoak aldatzen direnean edo obrek edo instalazioek itsasoak harrapatzeke arrisku zuzurra dutenean, Administrazioak emakida aldatu edo baliogabe deklaratu ahal izango du, gertatutako aldaketan eta aplikatzeko den araudiaren arabera. Emakidadunak ez du kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango.

– Emakidaren muga-eguna.

35) Emakidaren epea amaitzean itzulketa gertatzen bada, automatikoki azkenduko dira, adierazpen espresurik egin beharrik gabe, emandako jabari publikoaren eta emakidaren xede diren obra eta instalazioen gainean hirugarrenek izan ditzaketen eskubide errealak edo pertsonalak.

Administrazioak ez ditu bere gain hartuko emakidadunak enpresa-jarduera egikaritzeko hitzartu ditzakeen lan-kontratuak, eta, beraz, ezin da inola ere ulertu itzulketak indarreko lan-legerian aurreikusitako enpresa ordezteak dakarrenik.

36) Emakidaren epea amaitutakoan, emakidaren xede diren lursailak, obrak eta instalazioak Estatuko jabari publikora itzuliko dira, eta emakidadunak, bere bizkar, obra eta instalazio horiek eraitsi eta kendu beharko ditu, zati batean edo osorik, baita lursaila aurreko egoerara lehengoratu ere, adierazitako epean eta inolako kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik gabe, salbu eta Administrazioak, emakidaren epea amaitu baino hilabete edo urte batzuk lehenago (zein den emakidaren iraupena), bere ekimenez edo emakidadunak eskatuta, adierazten badu, obra eta instalazioek interes publikoari izaten jarraitzen dutenez, haiek mantendu egin behar direla, zehazten den moduan ustiatzen jarraitzeko.

Emakidadunak azken aitortza-aktan agertzen ez diren elementuak kendu ahal izango ditu, higiezinari modu finkoan lotuta ez badaude eta haiek kenduta higiezina urratzen edo hondatzen ez bada. Salbuespena izango da Administrazioak haiek eskuratzea erabakitzen badu.

Administrazioak egingo du itzulitako ondasunak jaso izanaren akta, emakidadunaren aurrean, azken hori agertzen bada. Aktan zehaztuko da emakidadunak betetzen duela lursaila aurretik zuen egoerara lehengoratzeko betebeharra, edo, bestela, Administrazioak obrak eta instalazioak mantentzea erabaki badu, haien kontserbazio-egoera jaso, eta narriadurak zehaztuko dira.

Azken kasu horretan, akta oinarri izango da dagokion espedientea bideratzeko. Bertan, emakidadunari jakinaraziko zaio zer konponketa egin behar dituen bere kargura eta adierazitako epean.

– Zehapen-, azkentze- eta premiamendu-prozedura.

37) Emakidan ezarritako baldintzak eta preskripzioak osorik edo zati batean betetzen ez badira, zehapen-espedientea irekiko da, Kostaldeei buruzko Legearen 91.e) artikuluan jasotako arau-hausteagatik. Hala ere, Administrazioaren iritziz arau-haustea delitua edo falta izan badaiteke, eskumena duen jurisdikzioari helaraziko dio erruduntasun-testigantza.

38) Emakidaren azkentze-espedienteari hasiera ematera behartuko duten arrazoiak gorabehera (aurreko baldintzetan eta Kostaldeei buruzko Legearen 79. artikuluan adierazitakoak), emakidadunak BPPAn berariaz zehazten diren beste baldintza partikular eta preskripzio batzuk ez betetzea ere nahitaezko arrazoia izango da azkentze-espedientea irekitzeko.

Gainerako ez-betetzeak ere emakida azkentzeko arrazoi izan daitezke, bereziki gainerako baldintzetako bat edo batzuk behin eta berriz hausten direnean.

Az kentze-adierazpena egiten bada, eraturako fidantza edo fidantzak galduko dira, oraindik itzuli ez badira. Horrez gain, itsasertza kudeatu eta antolatze eskumena duen sailaren iritziz, obrak eta instalazioak, osorik edo zati batean, emakidadunaren kargura eraitsi eta kendu ahal izango dira, baita lursaila aurretik zuen egoerara leheneratu ere, adierazitako epean eta inolako kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik gabe.

Az kentze-espedientea izapidetu egingo da dagokion zehapen-prozedura hasi ala ez.

39) Emakidadunak ez baditu gauzatzen Administrazioak agintzen dizkion ekintzak, dagozkion baldintzak aplikatuta, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 102. artikulua araber (urriaren 1eko 39/2015 Legea), Administrazioak egikaritzea subsidiarioa egin ahal izango du, eta gastuen eta kalte-galeren zenbatekoa emakidadunaren kargura izango da.

40) Egindako jarduketan ondorioz emakidadunak administrazioari kopuru likidoa ordaindu behar badio baina ordaintzen ez badio, premiamendu-prozedurari jarraituko zaio, Diru-bilketari buruzko Erregelamendu Orokorrean xedatutakoaren araber.